

**ALKATETZA
DEKRETUA**
2021 000001121**Espediente-zenbakia:** 2018/KON_NE_G0003

Xedea

Jaioberrien bertso paperak egiteko zerbitzu-kontratua luzatzea onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019ko maiatzaren 6an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Bermeoko jaioberriei bertsopaperak egiteko zerbitzua emateko kontratua esleitzeko baldintza agiriak onartu zituen.

Bigarrena: 2019ko azaroaren 28an, idazkari nagusiak 73/219 txostena egin zuen.

Hirugarrena: 2019ko abenduaren 4an, kontu-hartzaileak ikuskatze mugatuaren txostena egin zuen.

Laugarrena: Iragarkia 2020ko martxoaren 12an argitaratu zen Bermeoko Udalaren web gunean eta alarma egoera dela eta, epea etenda geratu zen. Bigarren iragarkia 2020ko maiatzaren 6an argitaratu zen.

Bosgarrena: Proposamenak aurkezteko epean, Lilibertso Elkartek bere eskaintza aurkeztu zuen 2020ko maiatzaren 18an eta, elkarteagaz negoziatu ondoren, azken eskaintza aurkeztu zuen 2020ko maiatzaren 22an.

Seigarrena: 2020ko maiatzaren 25ean, esleipen proposamena egin zuen Euskara teknikariak, eta esleipena egin orduko agiriak aurkezteko errekerimendua egin zitzaion Lilibertso Elkarteari egun berean.

Zazpigarrena: Lilibertso Elkartek, errekerimenduan eskatutako agiriak eta bermea aurkeztu zituen 2020ko ekainaren 3an.

Zortzigarrena: 2020ko ekainaren 4an, Euskara teknikariak, esleipena egiteko proposamena egin zuen.

**Sinadurea eta data**

Bederatzigarrena: 2020ko ekainaren 9an, Euskara arloko zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez, zerbitzu-kontratua esleitu zen.

Hamargarrena: 2020ko ekainaren 26an kontratua formalizatu zen. Baldintza berezien 2. atalaren arabera, kontratua 2021eko ekainaren 19an bukatuko da.

Hamaikagarrena: Kontratua arautzen duen administrazio baldintza agirien laugarren klausulak kontratua urtebetez luzatzeko aukera ematen du, gehienez ere, 4 urteko epearekin.

Hamabigarrena: Idazkari Nagusiak aldeko txostena egin du, oharrekin, 2021eko apirilaren 13an, eta ohar horiek kontuan izan dira.

Hamahirugarrena: Kontu hartzaileak aldeko txostena egin du, 2021eko apirilaren 15ean.

Argudioak

Lehenengoa: Jaioberrien bertso paperak egiteko zerbitzu-kontratua 2021ko ekainaren 19an amaituko da, baina kontratazioa oinarri duen Administrazio-baldintza zehatzen agirien 4. atalean, kontratua urtez urte luzatu daitekeela aurreikusten da, gehienez lau urtera arte.

Kontratua luzatu ahal izateko, luzapenaren erabakia kontratuaren iraunaldia amaitu baino lehen onartu beharra dago, hau da, 2021ko ekainaren 19a baino arinago. Halaber, luzapena derrigorrezkoa da esleipendunarentzat, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua arabera, jakinarazpena iraupena amaitu baino bi hile arinago egiten bada.

Bigarrena: Kontuan izanda zerbitzua era egokian ematen dela, eta kontratua luzatzeko aukera dagoela, luzapena egikaritzea ikusten da eraginkorra.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan.

Laugarrena: Bestalde, kontratuaren luzapena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, ahalmena alkateari dagokio. Hala ere, 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Zinegotzi delegatuarengan eskuordetu zen.

Erabakia

Goian aipatutakoa kontuan hartuta, honakoa erabaki da:

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000671E700F2T6X8V3N0B2

Sinadurea eta data

KEPA ZUMETA GARRO-EUSKERA ETA MERKATARITZA ZINEGOTZIA - 20/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/04/2021
14:14:12

EXPEDIENTE ::
2018KON_NE_G0003
Data: 18/10/2018
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000671E700F2T6X8V3N0B2



LEHENENGOA: Jaioberrien bertso paperak egiteko zerbitzu-kontratuaren lehenengo luzapena onartzea, urte bateko epearekin, 2021eko ekainaren 19tik 2022ko ekainaren 18ra arte (biak barne).

BIGARRENA: 3.000 euroko gastua onestea, 01400 33530 2270402 kontu-sailaren kargura.

Kontratua luzatzearen ondorioak juridikoki eraginkorrak izateko, ezinbestekoa izango da 2021eko Udal Aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotea, baina horrek ez du esan nahi udala dagokion aurrekontu-aplikazioa hornizetik salbuesten duenik.

HIRUGARRENA: Udaleko zerbitzu ekonomikoei igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA: Luzapenaren onespena kontratistari jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituen errekurtsioak adieraziz.

BOSGARRENA: Luzapena formalizatu ondoren, kontratugilearen profilean argitaratzea eta Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 346.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

SEIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Dekretu hau alkateak eskuordetzea emanda sinatuko da

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E5000671E700F2T6X8V3N0B2

Sinadurea eta data

KEPA ZUMETA GARRO-EUSKERA ETA MERKATARITZA ZINEGOTZIA - 20/04/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/04/2021
14:14:12

EXPEDIENTE ::

2018KON_NE_G0003

Fecha: 18/10/2018

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

